


Quisiera ser alcalde Donostiyakua...

Gaia jarrita

Iñaki Iturain



UEMA
legez kanpo

Doinua:

«Espainian behera»

**UEMA egin digute
ilegalizatu,
ezin omen inola
legeakin batu.
Handien legea da
txikia zanpatu;
legea tresna da ta
lehenbailehen aldatu
bestela ez balego
bezala jokatu.**

Etxe publikoak Kontadoresen

alkatetzak etxebizitzaren prezioen arazoari irtenbide duina emateko aukera paregabea du, Kontadoreseko lantegi zaharrea 227 etxebizitza publiko, salmentan edo alokairuan eskaintzekoak, eraikita. Hori egin beharko luke, bertako jabe pribatuei, Altuna eta Uria S.A. enpresa eraikitzaileari 4.000 milioi pezetako opari bikaina egin nahi ez badio, behintzat.

Kontadoreseko lursailean etxebizitzak eraiki ahal izateko, Plan Orokorrean duen erabilera aldatu beharko du Udalak. Izan ere, gaur egun, merkataritzarako eta komunitate-zerbitzuetarako lursaila baita.

Udalak eta Altunak eta Uriak lursail honen erabilera aldatuz, 227 etxebizitza egiteko asmoa dute. 162 etxebizitza salmenta librekoak izango dira, merkaturaren aginduetara 40 milioi pezeta baino garestiagoak. Gainontzekoak, 65 etxebizitza, Udalak eraikiko ditu eta babes ofizialekoak izango dira.

Kontadoreseko lursaila interes pribatuen esku gera dadin, erakunde publikoek 3.651 milioi pezeta alferrik galdu behar izan dituzte. Izan ere, 4.151 milioi pezetako zorra zuten kobratzeko, baina jabeek 525 milioi pezetatan negoziatu zuten 1997an lursail honen salmenta.

Plazaratutako datu hauek kontuan hartuta, Kontadoresen 227


etxebizitza egitekotan, hauek denek publikoak izan behar dutela aldarrikatu nahi dugu.

Gure proposamena honako hau da: alkatetzak etxebizitza publikoak egiteko lursailaren erabilera aldatu aurretik, lursaila eskuratu behar du. Espropiazioaren bidez egin dezake hori, honetarako legeak ematen dizkion aukerez baliatuta. Lursaila eskuratzeko duen beste bide bat Altuna eta Uria enpresari erostea da, 525 milioiren truke.

Bidebietako Komisioko kideok proiektu honi egin diogun alegazioaren aldeko sinadurak bildu ditugu. Bederatzi egunetan, guztira 700 alegazio bildu eta udaletxean erregistratu ditugu. Auzotarren artean bildu dira sinadura gehienak. Donostiako hamabost elkartetak eta ELA, ESK eta LAB sindikatuek ere bat egin dute gurekin. Eta alderdi politiko batzuk ere gure proposamenaren alde azaldu dira: EA, EAJ, EH eta IU.

MARIBEL MANZANO HERCE

Bidebietako Etxebizitza Duinaren Aldeko Batzordea



Argazkia: Inma Olegi



San Frantzisko kalea 16 • 20001 DONOSTIA
Tfnoa. eta faxa: 943 276 541

- ✿ Liburuak
- ✿ Paperdenda
- ✿ Prentsa
- ✿ Fax
- ✿ Fotokopiak

ETOR ZAITEZ HITZ LIBURU
ETA PAPERDENDA BERRIRA

